Bestelako Xedapenak

HERRIZAINGO SAILA

1684

AGINDUA, 2010eko otsailaren 19koa, Herrizaingoko sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Udaltzaingoak Koordinatzeko Batzordearen osaera aldatu eta argitara ematen duena.

Euskal Herriko Poliziaren uztailaren 17ko 4/1992 Legea indarrean sartzeaz Euskal Autonomia Erkidegoko Udaltzaingoak Koordinatzeko Batzordea sortu zen, hain justu ere Herrizaingo Sailari atxikitakoa eta udaltzaingoak koordinatzeari dagokionez organo aholku-emailea izango zena. Bada, aipatu legearen 121.2 artikuluan finkatzen da Batzordearen osaera eta bai bere kideak izendatzea nori dagokion ere.

Herrizaingoko sailburuaren 1993ko abenduaren 10eko Aginduz, Euskal Autonomia Erkidegoko Udaltzaingoak Koordinatzeko Batzordearen lehen osaera argitaratu zen, eta gerora hainbat aldiz aldatu da, eraketa hori Batzordean ordezkariak izateko eskubidea duten erakunde eta entitateetan izandako aldaketetara egokitzeko.

Herrizaingo Sailaren egituran izandako aldaketak aintzat hartuta, bidezkoa da Euskal AUtonomia Erkidegoko Udaltzaingoak Koordinatzeko Batzordearen eraketa aldatzea.

Ondorioz,

EBATZI DUT:

Artikulu bakarra.– Euskal Autonomia Erkidegoko Udaltzaingoak Koordinatzeko Batzordearen osaera argitara ematea. Kideak honako hauek dira:

a) Lehendakaria:

Titularra: Herrizaingoko sailburua.

b) Herrizaingo Sailaren ordezkariak:

Titularrak:

– Segurtasuneko sailburuordea.

– Ertzaintzako zuzendaria.

– Udaltzaingoak Koordinatzeko zuzendaria.

Ordezkoak:

– Segurtasuneko sailburuordearen kabineteko zuzendaria,

– Giza Baliabideen zuzendaria,

– Trafikoko zuzendaria.

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE INTERIOR

1684

ORDEN de 19 de febrero de 2010, del Consejero de Interior, por la que se modifica y hace pública la composición de la Comisión de Coordinación de Policías Locales del País Vasco.

La Ley 4/1992, de 17 de julio, de Policía del País Vasco creó la Comisión de Coordinación de Policías Locales del País Vasco, como órgano consultivo en materia de coordinación de las Policías Locales, adscrita al Departamento de Interior. El artículo 121.2 de la Ley establece cuál ha de ser la composición de la referida Comisión y a quien corresponde la designación de sus miembros.

Por Orden de 10 de diciembre de 1993, del Consejero de Interior, se publicó la primera composición de la Comisión de Coordinación de las Policías Locales del País Vasco, que ha sido modificada en diversas ocasiones con objeto de adecuar la composición a los cambios operados en las diversas instituciones y entidades que ostentan derecho a ser representadas en la Comisión.

Habida cuenta de los cambios acaecidos en la estructura del Departamento de Interior, es por lo que se procede a modificar la composición de la Comisión de Coordinación de Policías Locales del País Vasco.

En su virtud,

RESUELVO:

Artículo único.– Hacer pública la composición de la Comisión de Coordinación de las Policías Locales del País Vasco cuyos miembros son los siguientes:

a) Presidente:

Titular: el Consejero o Consejera de Interior.

b) Representantes del Departamento de Interior:

Titulares:

– El Viceconsejero o Viceconsejera de Seguridad.

– El Director o Directora de la Ertzaintza.

– El Director o Directora de Coordinación de Policías Locales.

Suplentes:

– El Director o Directora del Gabinete del Viceconsejero de Seguridad.

– El Director o Directora de Recursos Humanos.

– El Director o Directora de Tráfico.

c) Udaletako ordezkariak:

– 7 alkate titular eta haien ordezkoak, Euskal Autonomia Erkidegoan indar handiena duen Euskal Udalerrien Federazio edo Elkarteak izendatuak.

d) Udaltzaingoetako funtzionarioen ordezkaria:

– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Lokalean ordezkaritza handiena duen sindikatuak izendatutako ordezkaria eta haren ordezkoa.

e) Idazkaria:

– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko karrerako funtzionario bat, Zuzenbidean lizentziatuak direnen artetik Herrizaingoko sailburuak izendatua; idazkari lanak egingo ditu, eta hitza izango du, baina botorik ez.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Lehendakariaren lanpostua hutsik badago, edo hura kanpoan edo gaixorik badago, Segurtasuneko sailburuordeak egingo ditu haren ordezkoak, eta azken horrenak, ostera, ordezkoak egingo ditu.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko otsailaren 19a.

Herrizaingoko sailburua,
RODOLFO ARES TABOADA.

c) Representantes de los municipios:

– 7 Alcaldes titulares y sus correspondientes suplentes designados por la Asociación o Federación de Municipios Vascos con mayor implantación en la Comunidad Autónoma.

d) Representante de los funcionarios de los Cuerpos de Policía Local:

– Un representante y su correspondiente suplente designado por la organización sindical con mayor representación en la Administración Local del País Vasco.

e) Secretaría:

– Un funcionario de carrera de la Administración de la Comunidad Autónoma, designado por el Consejero de Interior de entre quienes ostenten la condición de Licenciado en Derecho, que actuará como Secretario, con voz y sin voto.

DISPOSICIÓN ADICIONAL

En los supuestos de vacante, ausencia o enfermedad del presidente corresponderá su suplencia al Viceconsejero de Seguridad, el cual a su vez será sustituido por el suplente.

En Vitoria-Gasteiz, a 19 de febrero de 2010.

El Consejero de Interior,
RODOLFO ARES TABOADA.